



Usurbilgo Udala

## 2017KO AZAROAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

**Ezin-etorria adierazi du:** Xuban Zubiria Elexpe

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko azaroaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

**\*2017/09/26ko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2017ko irailaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**\*2017/10/04ko bilkurako akta.**



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2017ko urriaren 4ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: URRIAREN 23TIK AZAROAREN 17RA (2017/1072-2017/1158).**

Alkatetzak 2017ko urriaren 23tik azaroaren 17ra bitartean (2017/1072–2017/1158) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 2017-2020 EPEALDIKO PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA.**

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Ogasun batzordean luze eta zabal jardun zirela gai honi buruz eta 2017-2020 epealdiko plan ekonomiko-finantzarioa dela gaur hona dakartena adierazi du. Azaldu du Zumarteko obra egin ahal izateko 2 milioi euroko kreditu-aldaketa (2017/4) egin zela eta horrek aurrekontuaren egonkortasunaren helburua ez betetzea ekarri zuenez, plan ekonomiko-finantziario bat egiteko obligazioa dagoela.

Aurreko plenoan mahai gainean utzi zela gogorarazi du, besteak beste, plan hori hiru hilabete igaro baino lehen jarri beharko litzatekeelako martxan, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak plan horren tutoretza egiten duenez, epe gehiago eman zuen eta beste modu batetara lantzea hobetsi zela adierazi du. Beraz, orain, planteamendu berri batekin dakartela esan du.

Egonkortasun legeak hiru arau jasotzen dituela aipatu du, eta arau horiek egonkortasuna betetzen ez den urtean edo hurrengo urtean betearazteko obligazioa dagoela adierazi du.

Plan finantzarioan, alkatearen memorian azaltzen den bezala, gastu araua eta egonkortasuna betetzeko betebeharra dagoela esan du. Horretarako, plan finantzario hau 2017ko likidazioa oinarri hartuta egin dutela esan du eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ere horiek oinarri hartuta direla dio. Aurten bertan egonkortasun araua eta gastu araua betetzen direla jakinarazi du.

Sarreretan ikusten dela dio aurreikusitako sarrerak beteko direla. Gaineratu du salbuespen gisa likidazio honetan ez dituztela kontutan hartu 2. kapituluko obren gaineko zergan Ugartondoko diru-sarrerak eta 6. kapituluan udalaren etxebizitza saltzeagatik aurreikusita zeuden 106.000 euroak.

Jarraitu du esanez aktibo finantzariotan ez dela gerakina isladatzen, soilik langileei aurreratutako diru kopurua.

9. kapituluan, 2 milioi horiek sortzen duten aktibo finantzarioa ez dela erabiliko azaldu du, datozen urteetan erabiliko baita.



Usurbilgo Udala

Gastuetako gauzatze mailari dagokionez, aurreikuspenetan ikusten dela dio 1. kapitulua %100ean gauzatuko dela, 2. kapituluan azken bost urteetako exekuzio-mailaren batz bestekoa aplikatu da, %86,81a, 3. kapitulua bere horretan exekutatu dela kalkulatu da, transferentzi arruntetan azken bost urteetako batz bestekoa aplikatu da, %84,78a, eta inbertsio errealean kapituluak bariazio handiagoak izaten dituela eta partida bakoitza banan-banan aztertuz ikusi dela 1.014.736 euro exekutatu direla. 7. kapitulua, kapital transferentziena, osotasunean erabiliko dela azaldu du, aktibo finantzarioak diru-sarreraren berdina izango dira eta pasibo-finantzariotan, berriz, 342.000 euro.

Aipatutako aurreikuspena beteta, esan dezaketela dio 2017an bertan egonkortasun eta iraunkortasun helburuak eta gastu araua beteko direla.

Zorrari dagokion kapituluan ez dutela arazorik dio, legeak uzten duenaren oso azpitik baitaude.

Josune Urkolak adierazi du abstenitu egingo direla. Bestalde, batzordeko irizpenean jartzen duela dio plan ekonomiko-finantzarioa onartzen dela Kontu-hartzailearen txostenarekin, alkatearen memoriarekin eta 2017-2020 epealdiko aurrekontu eszenarioarekin, baina plenorako txostena eta memoria ez direla banatu adierazi du.

Kontu-hartzaileak adierazi du espedientearen jasota daudela. Hala ere, zehaztu du memoria dela Alaitzek eta alkateak batzordean eman zituzten azalpenak, txostena badutela eta eszenarioa berriz irizpenarekin banatu den taula dela.


Fermin Orue-Echevarriak ere abstenitu egingo dela adierazi du.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honen arabera:

“Ogasun Batzordeak, azaroaren 22an egindako bilkuran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin eta Fermin Orue-Etxebarria eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, honako proposamena luzatu dio Udalbatzarrari:

### **"2017-2020 epealdiko plan ekonomiko-finantzarioa.**

Usurbilgo Udalak onartutako 2017/004 zenbakia duen kreditu aldaketa espedienteak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua. Hortaz, beharrezkoa da plan ekonomiko-finantzario bat egitea, otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan jasotakoaren arabera.



Usurbilgo Udala

Plan horrek ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Plan ekonomiko-finantzarioa entitateko Udalbatzari aurkeztu behar zaio, hilabeteko epean gehienez, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera. Udalbatzak bi hilabeteko epean onartu behar du plana, aurkezten zaionetik aurrera, eta hiru hilabete igaro baino lehen jarri behar da martxan, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera.
- Planak bermatu behar du aurrekontu egonkortasunaren helburua/gastuaren araua jarduneko ekitaldian edota hurrengoan betetzen dela.

(Zor publikoaren helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan-ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020. urteko denbora muga.)

- Onartutako plan ekonomiko-finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaio, haren jarraipena egin dezan.

Hori dela-eta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## **E R A B A K I A**

Onartzea plan ekonomiko-finantzarioa, hiru atal hauek dituen:

- 1.- Kontu-hartzailearen txostena
- 2.- Alkatearen memoria
- 3.- 2017-2020 epealdiko aurrekontu eszenarioa”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO SGERC-2 (REZUSTAENEA) SISTEMA OROKORRAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Hirigintza batzordetik datorren gaia dela dio eta behin baino gehiagotan aipatu izan dutena.

Kasu honetan, Zumarte musika eskolaren eraikina birgaitzeko proiektuan ikusi dela dio eraikigarritasun fisikoa handitzea eta lerrokadurak egokitzea beharrezkoa dela. Hori dela eta, iraileko ohiko udalbatzan hasieraz onartu zen proposamen hau, gerora jendaurrean egon da eta ez denez inongo alegaziorik aurkeztu, gaurko Udalbatzan eskatzen dela dio behin betikoz onartzea.

Irizpenean jasotzen diren lau puntuen berri eman du.

Mirari Azurmendik aipatu du irizpeneko lau puntuetan errepikatuta agertzen dela Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarietako.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2017-0379

## **AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, SGERC-2 (Rezustaenea) sistema orokorreko hirigintza eremuan kokatzen den Zumarte Musika Eskola eraikinaren eraikigarritasun fisikoa handitzea eta lerrokadurak egokitzea egungo erabilerak beharrezkoak dituen baldintzetara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua idatzi dute udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.LP. Taldeko Nekane Azarola Martinez andereak. Horrekin batera, eremuan bertan dagoen ezkia babesteko beharrezkoak diren neurriak zehazten dira dokumentuan.

## **ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Aurkeztutako dokumentuaren memoriak honela zehazten du Aldaketaren edukia eta helburua:

EZAUGARRIEN FITXA-ren edukia SGERC 2 REZUSTAENEA sistema orokorraren eremua egungo erabilera etorkizuneko beharretara egokitzeko ezinbestekoak dituen handitze eta birgaitze baldintzetara egokitzea da helburua. Horretarako, beharrezkoa irizten da 2. AZALERAK eta 6. ANTOLAMENDUA atalei dagokien zuzenketak egitea.



Usurbilgo Udala

Aldaketaren komenitasun eta egokieraren eta justifikazioari dagokionez berriz, honela zehazten da:

Aurreko ataletan justifikatu den moduan, aldaketa puntualaren espediente honek helburutzat dauka hirigintza-estaldura ematea Arau Subsidiarioak aisialdi- eta kultura-ekipamenduko sistema orokor bati - SGERC 2 REZUSTAENEA – onartzen dien eraikigarritasun fisikoa handitzeko. Era berean, planteatzen den handipenari hainbat hirigintza-zehapen egokitzea proposatzen da.

## **HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA**

Hala, 2017ko irailaren 26an, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, zera erabaki zuen hitzez hitz:

**LEHENDABIZI:** Plenoak, 2017ko uztailaren 26an, hasieraz onartu eta jendaurrean jartzea erabaki zuen Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko uztaila) bertan behera uztea.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko iraila) hasieraz onartzea.

**HIRUGARRENA:** Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.


Hartutako erabakiaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Berria: 2017-10-03
- Gara: 2017-09-30
- El Diario Vasco: 2017-10-03
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (189. zenbakia): 2017-10-03

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, **ez da inolako alegaziorik aurkeztu.**

## **LEGE TXOSTENA**

Udal idazkariak, Garazi Etxeberria San Miguel andereak, 2017ko uztailaren 14eanemandako txostenean zehaztu zuen jarraitu beharreko izapidetzea:



Usurbilgo Udala

## LEGE-TXOSTENA

### **GAIA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea

**Esp. Zenbakia:** HZ.01/2017-0379

(...)

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:

- Hasierako onespena udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Aldaketa 20 egunez jarriko da jendurrean, GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aldaketak funtsezkoak balira, berriro ere hasierako onespena emango litzaioke testuari eta jendurrean jarriko litzateke.

- **Plenoak**, alegazioak ikusita, behin betiko onartuko du dokumentua. Sei hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin hasierako onespena eman ondoren.
- Antolamendu Xehatuaren aldaketa Foru Aldundira igorriko da, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin. Behin betiko onespena GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuko da eta bertan adieraziko da hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela. Antolamendu Xehatuaren aldaketa GAOean argitaratu eta handik 15 lanegunetara sartuko da indarrean.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2017ko uztailak 14

Udal idazkariak

*Garazi Etxeberria San Miguel*

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2017ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko iraila) behin betikoz onartzea.



Usurbilgo Udala

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko iraila) Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETAREN (2017ko iraila) behin betiko onspena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

**LAUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko iraila) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **5.- USURBILGO UDAL HILERRIAREN ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIAREN ALDAKETA.**

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hilerrri zaharraren hustutzean eta hilerrri berriko anpliazioan sartuta daudela dio, eta araudia egokitu beharrean aurkitzen direla. Egun indarrean dagoen araudia 2007an onartutakoa dela esan du.

Hilerrri berrian gune berri bat sortu dela, errautsen parkea, eta hori araudian txertatu beharra zegoela esan du. Halaber, araudia zaharkituta ere bazegoenez, egokitu egin behar izan dela gaineratu du. Ohartarazi du behin araudi hau onartuta, errautsen parkea erabilgarri egongo dela.

Irizpenak dituen bi puntuen berri eman du.

Alkateak jakinarazi du errautsen parkeko obrak jada amaituta daudela eta inaugurazio ekitaldi bat egiteko asmoa dutela, abenduaren 16an eguerdiko 13:00ean.





Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak Batzordearen irizpena aztertu ondoren, gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.17/2017-0559

### **Aurrekariak**

Egun, 2007ko abenduaren 4an GAO n argitaratu zen Usurbilgo Udaleko erregimen eta funtzionamendurako araudia dago indarrean.

Usurbilgo Udalerriko hilerriko handitze lanak burutzen ari dira. Lan hauen ondorioz, gune berri bat sortuko da bertan: Errautsen Parkea.

Parke horretan hilerri zaharrea lurperatuta zeudenen ondorengoei hauek erraustu eta era anonimo batean, Usurbildar gisa, bertan zabaltzeko aukera eman zaie. Bestalde, Errautsen Parkean errautsak zabaltzeko aukera emango da aurreratzean, baita kolunbarioetan dauden errautsak, behin epeak amaituta, bertan uzteko ere.

Errautsen Parke hau arautze aldera, gaur egun indarrean dagoen Hilerriko Araudian aldaketak egitea beharrezko ikusi da. Era berean, aldaketa hau egin beharra probesten da, legedian izan diren hainbat aldaketa medio dagokion eguneraketa egiteko.

### **Ikusirik**

- Hilerri berriaren Errautsen Parkea eraikitzen ari denez, Usurbilgo hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudia aldatu behar da.


### **Prozedura**

Ordenantza aldatzeko prozedura, berau indarrean jartzeko bera da, hau da, gorago jasotako Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 49. artikulua araberakoa:

- Dagokion informazio batzordeak irizpena igorri eta Udalbatzak onetsi beharko du, gehiengo soilarekin.
- Ondoren, jendaurreko informazioa eta interesdunaren entzunaldia abiatuko da, 30 egunez gutxienez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Hasierako onespenera buruzko erabakia udaleko web-atarian argitaratuko da, ediktuen taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Epe barruan aurkeztu diren erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi ondoren, udalbatzak behin betiko onetsiko du, aurretik dagokion batzordeak irizpena emanda. Hasierako erabakian ezar daiteke erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordenantza edo araudia behin betiko onetsizat joko da, zuzenean.

### **Kontutan harturik**

Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2017ko azaroaren 09an egindako bilkuran, alde batetik Jone Urdanpilleta eta Joxe Mari Iribarren ALDEKO botoekin eta bestetik, Mirari



Usurbilgo Udala

Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren ABSTENTZIOAREKIN, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Usurbilgo hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudiaren aldaketa hasieraz onartzea, atxikitako eranskinean jasotako aldaketak kontuan hartuz.

**BIGARRENA:** Aipatu ordenantzaren aldaketaren jendurreko informazioa eta interesdunen entzunaldia abiaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, 30 egunez, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen. Epe horretan iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsizat joko da, Udalbatza plenoaren berariazko akordio beharrik gabe.

Testua, ediktuen taulan eta udaleko web orrian ere argitaratuko da.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

### **6.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: AZAROAREN 25A, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du pasa den larunbatean izan zela emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna eta horren harira adierazpen instituzional hau aurkeztu duela. Zehaztu du testua Eudelek onartu zuen adierazpena dela.

Jarraian, adierazpenak jasotzen dituen lau puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, 2017ko azaroaren 22ko Antolakuntza Batzordean tratatua izan zen adierazpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

***“Begirada berria emakumeen aurkako indarkeriari***



Usurbilgo Udala

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da erreparazio-eskubidea emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.

Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak sistematikoki aztertuz.


Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa agenda politikoan indarkeriak eragindako emakume biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.
- Gure konpromisoa udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko edo, hala badagokio, abian jartzeko, indarkeria matxistari aurre egitea xede, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin batera, bai halaber gizarte zibilarekin eta herritarrekin oro har.
- Gure konpromisoa gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezen.
- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak eskura izan daitezen, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.



Usurbilgo Udala

## **7.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Alkateak adierazi du aurreko puntuko gai berarekin Antolakuntza batzordean EH Bilduk aurkeztutako adierazpena ere tratatu zela. Batzordean bertan aipatu zutela dio bi adierazpenak osagarriak zirela eta erabaki zen biak ekartzea plenora.

Josune Estellari eman dio hitza adierazpen honen berri eman dezan.

Josune Estellak adierazpenak jasotzen dituen puntuak irakurri ditu.

Jarraian, abenduaren 13rako bilera berezi bat deitu nahi dutela jakinarazi du berdintasunaren inguruan eztabaidatzeko, proposamenak eta iritziak jasotzeko eragile eta herritarrekin. Batzarkideei bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu die.

Batzarkideek, 2017ko azaroaren 22ko Antolakuntza Batzordean tratatua izan zen adierazpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Azaroaren 25a, emakumeen kontrako mota guztietako indarkeria gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen duten agente eta egitura guztiak gaitzesteko eta aski dela esateko egun bat da. Eta egun horretan erakunde publikoek, borroka horretan dugun lehentasuneko agente-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu. Emakumea izateagatik soilik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.

### **ARRAZOIA:**

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Usurbilgo udal honek, emakumeek indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten guneak eraikitze xedez, herrialde eta lurralde askeak lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza-eredu askeak errealitate bihurtzeko, egitura sozial paritarioa lortzeko xedez, gure herrialde-konpromisoa sakontzea gure gain hartzen dugu, eta era berean, herritar guztien konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa dugula berresten dugu.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok bere agenda politikoaren eta jardun instituzionalaren lehentasun gisa indarkeria matxistarik gabeko herrialdeak eta lurraldeak eraikitzea izan behar du, baita gizarte igualitario baten defentsa ere, non emakumeek euren burua aske sentituko duten.

Sistema kapitalista neoliberalak patriarkatuarekin duen aliantzak, azken urteotan bizi dugun krisi sistemikoak bizkortu egin duenak, emakumeen bizitzan zuzeneko inpaktu garrantzitsua izaten jarraitzen du. Horrela, aurten ere, Hego Euskal Herrian indarkeria



Usurbilgo Udala

matxistaren datuek gorantz jarraitzen dute, eta % 18,2 handitu dira 2016. urtean 2015. urtearekin alderatuta. Emakume asko, eta askotan ahaztu egiten ditugun haien seme-alabak hil egin dituzte aurten, eta sexu-indarkeriako kasu asko ere izan dira, batez ere udako herri-festetan.

Bitartean, kontzeptu horiek despolitizatzen dituen sistema batek bere gain hartzen ditu kontzeptu feministak, eta edukirik gabe uzten ditu, berdintasun faltsuko egoera bat normalizatzen lagunduz. Errealitateak aurkakoa adierazten digu; datu mediatiko eta ezagunenek, gorputzen aurka euren adierazpenik muturrekoenean eragindako zuzeneko indarkeriaren (bortxaketak eta heriotzak) datuek deseroso sentiarazten eta oihartzun soziala sortzen duten arren, ikus dezakegu indarkeria mediatiko eta soziala handitu egiten dela eta indarkeria fisikoa jasan duten emakume horiek beraiek zalantzan jartzen dituztela, erasoaren errua botatzen dietela eta, kasurik onenean, birbiktimizatu egiten dituztela, euren baliatzeko gaitasuna kenduz. Adibide gisa, salaketa faltsuei ematen zaien garrantzia azpimarratu nahi dugu, guztizko salaketen % 0,001 besterik ez diren arren.

Aldi berean, oihartzun txikia duten indarkeria-adierazpenak daude, horiek normalizatzen dituztenak eta emakumeen kontrako desberdintasunak eta bereizkeria iraunarazten dituztenak; indarkeria sinbolikoaren kasua da, komunikabideen, publizitatearen edota musikaren bitartez sortzen dena, emakumeak zapaltzen dituzten arauak eta esanak ezarriz, edota indarkeria ekonomikoaren kasua, soldata txikiagotan, lan-baldintza txarragotan eta abar islatzen dena. Era berean, aurten ere kezka handiarekin ikusten dugu emakumeen kontrako indarkeria handitu egin dela herrietako jaietan eta aisialdirako guneeetan. Ildo horretan, bereziki kezkatzen gaituzte gazteengan gertatzen diren botere-erlazioak, askotan kontrola, gehiegikeria eta, zenbaitetan, indarkeria fisiko eta sexuala barne.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, desberdintasunen sistemaren zati den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea horrelako ekintzaren bat gertatzen den bakoitzean; arrazoiaren gainean jardun behar da, sustraira jo behar da.

Beraz, beharrezkoa da indarkeria-adierazpenen arrazoiaren sakonduko duen ahalegin bat egitea, emakumeen ekiteko ahalmenean onartuz, haien erruduntasuna gaitzetsiz eta indarkeria matxistatik gabe bizi ahal izan daitezen lagunduz. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizarte-ereduaren egitura-aldaketa bat egitea; hori ez egitea bidezko aldaketa baten aldeko konpromisoari uko egitea izango litzateke.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun agente guztiok egin behar dugu, bestela indarkeria matxistari eusten jarraituko genukeelako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea sortzen edo babesten ari den indarkeria matxista amaitzeko: erakunde publikoak, kultura-agentek, komunikabideak, lan-arloko agenteak eta agente ekonomikoak.



Usurbilgo Udala

Baina pertsonak, familiek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dute.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko modu desberdinak ere babestu behar dira, helburu bakarra izan arren horren aurka borrokatzeko modu asko egon daitezkeelako: autodefentsa feminista bide bat da, baina era berean baliozkoak dira Beldur Barik ekimena, edo herrietako festetako testuinguruan aktibatu diren ekimenak eta ekintzak, elkarteek edo auzoek egiten dituzten ekimenak eta abar, denei eman behar zaie babesa.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi ditugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

- 1.- Usurbilgo udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.
- 2.- Usurbilgo udal honek, indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat jarrita dauka martxan eta horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuta mantentzen jarraituko du.
- 3.- Usurbilgo udal honek, izateko eta izendatzeko modua orekatzeko xedez, aurrerantzean "indarkeria matxista" adiera erabiliko dugu, adituek hori erabiltzen baitute modu normalizatuan.
- 4.- Usurbilgo udal honek, 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
- 5.- Usurbilgo udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko.
- 6.- Usurbilgo udal honek hezkuntzako agenteei zuzeneko deia egiten die curriculum-lerroetan genero-berdintasuna sar dezaten.
- 7.- Erakunde honetatik, hau da, Usurbilgo udalatik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.
- 8.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan."

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.

**Gai-zerrendaz kanpo:**

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA. EUSKARA AUZOLAN.**

Batzarkideek, hasteko, puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alaitz Aizpuruak azaldu du Eudel-ek eta Akobak onartutako adierazpena dela.

Jarraian, adierazpena irakurri du.

Ondoren, testua aztertu ondoren, aho batez onartu dute honako adierazpena:

**“Euskara auzolan**

**Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez**

Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainenetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.

Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.

Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.

Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainenetan dantzatzen ahalegintzen direnak...

Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.



Usurbilgo Udala

Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.

### **Bide berriak, bide guztiak**

Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.

Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.

Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.

Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzak ere berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Erabileraren mesedetan. Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.

Ideien konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunekiko errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.

Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.

### **365 egun**

Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.


Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.

Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahaldunduz.

Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegion eta Erronkarin.

Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.





Usurbilgo Udala

Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.

Euskara auzolana baita.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisola eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.

## **8.- GALDERA-ESKAERAK.**

Andoni Atxegak ur kutsatuari buruz galdetu du.

Kronologikoki azaldu du azaroaren 12an eta 13an gastroenteritis kimu handi bat izan zela herrian; gerora, asteazkenean, alkatea hedabideetan azaldu zela dio, Usurbile Añarbeko urak hornitzen zuela esanez. Eta, ondoren, ostegunean, bando bat zabaldu zela herrian, esanez iturriko ura ezin zela edan. Baina astelehenetik ostegunera alkatetzaren informazio eskasagatik edo utzikeriagatik herritarrek iturriko ura edaten jarraitu zutela salatu du.

Guzti honek galdera batzuk sortzen dizkiela adierazi du.

Hasteko, Usurbilen zein jatorriko ura edaten den eta nola banatzen den ur hori galdetu du.

Alkateak erantzun dio Andoniri hasieran kronologia aipatu duela baina hori ez ezik balorazioak ere egin dituela eta, hasteko, balorazio horiei erantzun nahi liekeela esan dio.

Utzikeria hitza aipatu duela eta hori aipatzea nahiko doakoa dela adierazi du informazio gehiago eduki ezean.

Andoni Atxegak erantzun dio epearengatik diola.

Alkateak jarraitu du esanez asteazkenean, artean, Osasun sailak berak bere txostenetan ez ziola Udalari inondik ere adierazi Usurbilgo gastroenteritis brotea



Usurbilgo Udala

urarengatik izan zitekeenik, hori dela eta, osteguna baino lehen ez zutela ezer jakinarazi.

Aldiz, ostegunean Erroizpeko uraren analitika batean balore alterazio batzuk zeudela jakinarazi zitzairenean, orduan esan zitzaizela akaso ura izan zitekeela brotearen arrazoa. Une horretan iruditu zitzaizela dio neurri prudentea zela badaezpada ere herritarrei jakinaraztea iturriko ura edatea ez zela komenigarria.

Gaineratu du ostiralean goizeko 8etan Osasun Saileko ordezkariekin bildu zirenean, eta hauek jakin zutenean jada bandoa banatu zuela Udalak, ondo iruditu zitzaizela, beraiek ere horrelakoetan bandoak zabaltzen omen dituzte-eta.

Uraren jatorriari buruz adierazi du Usurbilen ura bi hornikuntza bidetatik egiten dela, batetik, baliabide propioa den Erroizpeko depositutik eta, bestea, Larbaingo depositutik. Azken depositu hau Añarbeko urak hornitzen duela esan du. Usurbilek ura batetik nahiz bestetik hartu dezakeela adierazi du eta segun eta zein den egoera, baldintzak, etab. erabakitzen dela dio nondik hartu.

Zehazki azaroaren 12an eta 13an Usurbilgo ur gehiena Erroizpetik hornitu zela jakinarazi du, nahiz eta baziren gune batzuk (Kalezar, Txikiardi) Larbaindik hartzen zutenak.

Andoni Atxegak galdetu du berezko iturrien kontrola nork egiten duen.

Alkateak zehaztu du, Andonik kontrola aipatu duela baina bi gauza direla kontutan hartu beharrekoak. Batetik, tratamenduari dagokionez (klorifikazioa, potabilizazioa), Añarbek hornitzen dituenetan hori Añarbek egiten duela eta Usurbilgo Udalak hornitzen dituenetan tratamendua Usurbilgo Udalak egiten duela argitu du.

Baina, bestetik, horretaz gain, EAEko ur hornikuntza guztiek dutela esan du "Unidad de Control y Vigilancia" delakoa, eta hori hornitzaileak ez duela egiten jakinarazi du. Lan hori egiteko erakunde batzuk daudela dio, batzuetan publikoak direnak eta beste batzuetan pribatuak. Hemengo kasuan, Usurbilgo uren kontrola Añarbek egiten duela jakinazi du eta zehaztu du eginkizun hori Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak esleitu diola Añarberi.

Añarbek kontrol eta zainketa lanak aldizkakotasun batekin egiten dituela esan du eta, ondoren, horren emaitzak Udalari pasatzen dizkiola.

Orain artean Usurbilgo uren analitikek ez dutela inongo arazorik eman adierazi du eta argi eta garbi esan daitekeela ezohiko egoera baten aurrean gaudela.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du uraren kontrol horretan Añarberen gaineratik Osasun Saila dagoela, zeinek bere analitika propioak ere egiten dituen.



Usurbilgo Udala

Andoni Atxegak galdetu du zein izan den osasun arazo honen sortze arrazoia.

Alkateak erantzun dio ez dakitela eta jakinarazi zaiela ez dela batere erraza hori detektatzen, gainera momentu honetan dituzten indikadoreek ura ona dela esaten dutela adierazi du.

Andoni Atxegak galdetu du ea herritarren aldetik kexarik edo salaketarik aurkeztu den.

Alkateak erantzun dio ezetz. Are gehiago, publikoki esan zuen moduan herritarren aldetik oso jarrera ulerkorra, zibikoa eta eredugarria izan dela adierazi du.

Andoni Atxegak galdetu du Udalaren erantzukizun zibileko aseguruak gertaera hauek kubrituta ote dituen.

Idazkariak erantzun du Udalak erantzukizun zibileko asegurua baduela.

Andoni Atxegak adierazi du ez dakiela Udalaren kontrol hori zenbatero egiten den eta erantzun zaio egunero egiten dela.

Alaitz Aizpuruak azaldu du sasoi honetan norobirusa edozein lekutan aurkitu daitekeen birus bat dela. Asteartean Osasun Sailarekin harremanetan jarri zirenean eta lehenengo datuak eman zizkienean Anbulategian eta batez ere Ikastolan gastroenteritis kasuak asko zirela egia dela dio, baina beste edozein herritan egon zitekeen kantitateaz ari zirela hitz egiten argitu du. Osasun Sailak Usurbilgoa udazken honetako Gipuzkoako hirugarren brote bezala kontsideratuta zuela esan du. Hala ere, ikusita ze hedaketa izan zuen, arrazoiak begiratzen hasi zirela dio eta asteazkenean hipotesi bezala ura izan ote zitekeen markatu zela. Zantzuak dituen lehen txostena ostegunean iritsi zela adierazi du. Beraz, norobirusa ohikoa dela esan du eta ura izan dela hori hedatzeko ezohiko bide bat.

Denentzako egun zailak izan zirela adierazi du eta modu ahalik eta txukunenean kudeatzen saiatu zirela.

Andoni Atxegak adierazi du ez dakiela konturatzen diren gobernuan ez dauden zinegotziak ere zinegotziak direla eta hau guztia gertatzen ari zen bitartean lehen eskuko informazioa behar zutela. Gaineratu du bilera bat deitu behar zutela zekiten guzti hau beraiei informatzeko.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio Josune Urkolaren deiak jaso dituela, Josunek liberazio erdia duela, beraiek Udalean egunero ordu pilo bat egiten dituztela, zerbait galdetu zaienean ez dutela inongo erreparorik izan informazioa emateko eta batzordeetan gai honi buruz hitz egin dutela. Egoerak eskatu duen intentsitatearekin eta dedikazioarekin lan honetan topera jardun direla esan du. Kasu batzuetan errazagoa dela alderantzizko bidea egitea eta beraiengana zuzentzea eta galdetzea gaia zertan den iruditzen zaiola dio. Adierazi du informazioa emateko prestasun osoa eduki dutela uneoro.

Alaitz Aizpuruak adierazi du gai honetan ezin zaiela leporatu informazioa ezkututzen ibili direla.

Andoni Atxegak oposizioarentzat errespetua eskatu du eta hedabideei baino lehenago informazioa oposizioari eman behar diela. Berretsi du egoerak bilera monografiko bat eskatzen zuela.

Josune Estellak adierazi du ikusi duela zenbat ordu sartu dituzten bere taldekideek, zenbat jenderekin egon diren eta uste du galdetzea ez zaiela ezer kostatzen.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:52etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**